

Donostian, 2021eko irailaren 10ean

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

ERREKALDE ETA GALARRETAKO BIRIBILGUNEETAKO OINEZKO ETA BIZIKLETEN BIDE LOTURARI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Elkarrekin Donostia udal talde politikoaren bozeramaile Aitzole Araneta naizen honek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluekin bat, buruzko honako ERREKALDE ETA GALARRETAKO BIRIBILGUNEETAKO OINEZKO ETA BIZIKLETEN BIDE LOTURARI BURUZKO MOZIO hau, OSOKO BILKURAN EZTABAIDATZEKO.

JUSTIFIKAZIOA

Errekaldeko Euskotrenen geralekuaren ondoko biribilgunearen eta Galarretako biribilgunearen artean GI-2132 errepidea dago (Chillida Leku inguruan). 1,5 km inguruko errepide zati horrek ez du bazterbiderik edo albo espaziorik, ibilbidearen zatirik handiengan, eta, beraz, ezinezkoa da ibilbide hori oinez edo bizikletaz segurtasun baldintzetan ibiltzea. Gaur egun, ibilbide hori ibilgailu pribatuaren bidez soilik egin daiteke.

Ibilbide horren bi muturretan, bai Errekalde biribilgunean, bai Galarreta biribilgunean, espaloiak eta bidegorriak daude, eta eremu horiek Donostiarekin eta aldameneko beste udalerrri batzuekin lotzen dituzte. Hori dela eta, oinezko eta bizikletentzako bide lotura bat behar da, bi eremu horiek elkartzeko, ibilbide hori garraiobide sostengagarriagoetan (oinetz edo bizikletaz, adibidez) eta segurtasunez igarotzeko.

Gainera, eremu horiek, Galarretakoak nahiz Errekaldekoak eta Añorgakoak, birgaitze eta hobekuntza proiektuak izan eta izaten jarraitzen dute; beraz, eremu horien arteko lotura modu egokia izango litzateke birgaitze hori osatzeko eta oinezkoen eta txirrindularien pasabidea segurtasunez bideratzeko.

Hori dela eta, hona hemen gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio Errekaldeko eta Galarretako biribilguneak oinezkoentzako eta txirrindularientzako bide baten bitartez lotzeko proiektua egin eta gauza dezala.

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Elkarrekin Donostiaren bozeramailea.